

Formazioa
(aurrez-aurrekoa)

IRAKURTZEN ETA IDAZTEN
IKASI:
PROZESUA ULERTU
HOBETO IRAKASTEKO

Mikel Fernández Sánchez



Justifikazioa:

Irakurketa eta idazketa eskuratzea eta garatzea funtsezko prozesu konplexuak dira, eskolara sartu baino askoz lehenago hasten direnak eta eskolatze osoan zehar jarraitzen dutenak. Haurrek idazketa-sistemari buruz egiten dituzten lehen hipotesietatik hasi eta irakurmenerako eta testuak sortzeko estrategiak eraikitzeraino, eskolaren zeregina funtsezkoa da ikaskuntza hori lagundu, suspertu eta sendotzeko.

Ikerketa psikogenetikoei esker — batez ere Emilia Ferreirorena eta Ana Teberoskyrena —, gaur egun badakigu haurrek ez dutela irakurtzen eta idazten transmisio hutsez ikasten, eraikuntza-prozesu aktiboetatik baizik. Era berean, irakurmena eta idazketa ez dira teknika batera mugatzen; aitzitik, zentzuz irakatsi eta garatu beharreko praktika kulturalak, kognitiboak eta sozialak eskatzen dituzte.

Formazio honen helburua da irakasleei prozesu horiek ulertzen laguntzea, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako amaierara arte. Horretarako, haurrek irakurtzen eta idazten nola ikasten duten ez ezik, irakurtzen dutena nola ulertzen duten, testuak intentziorik eta zentzuz nola sortzen dituzten eta gela alfabetatzeko gune aktibo eta esanguratsu nola bihur daitekeen aztertzen da.



Helburuak:

- Hizkuntza idatziaren garapenaren etapak ulertzea, haurren lehen hipotesietatik hasi eta Lehen Hezkuntzako idazketa eta irakurketa praktikak finkatu arte.
- Irakurketa eta idazketa etengabeko irakaskuntza eskatzen duten praktika sozial, kultural eta kognitibo gisa ulertzea.
- Hurrek hasierako alfabetatze funtzionalerako bidean igarotzen dituzten kontzeptualizazio-mailak identifikatzea.
- Ikasgelako praktikak aztertzea, irakurmena, hizkuntza idatziaren erabilera erreala eta zentzuz egindako testuen ekoizpena ardatz hartuta.
- Irakurlearen eta idazlearen aurrerapena erraztuko duten ikaskuntza-egoerak diseinatzea, ikuspegi komunikatibo eta funtzional batetik.



Edukiak:

- Irakurketari eta idazketari buruzko ikuspegiak: metodotik prozesuaren inguruko hausnarketara.
- Idatzizko hizkuntzaren psikogenesia: haurren hipotesiak eta eboluzio-etapak.
- Irakurmena eraikuntza prozesu aktibo gisa.
- Testu-ekoizpena: intentzioz idaztea.
- Irakurketa eta idazketa prozesuen ebaluazioa: zuzentasun teknikoaz haratago.
- Haur eta Lehen Hezkuntzan irakurketa eta idazketaren garapenerako proposamen didaktikoak diseinatzea.
- Gela ingurune alfabetizatzaile gisa: testu errealak, erabiltzaile errealak eta irakurtzeko eta idazteko benetako egoerak.

Nori zuzendua:

Haur/Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak.



Aurrez-aurreko saioak

- 10 orduko formazioa.
- Gutxienez 2 orduko saioak.
- Formazioa modu presentzialean garatuko da, parte-hartzaileen artean lan hurbila, kolaboratiboa eta bizipenezkoa ahalbidetuz. Formatu honek esperientzien trukea, kasu errealen azterketa eta jakintza pedagogikoaren eraikuntza partekatua errazten ditu.
- Saioetan zehar, irakurketaren eta idazketaren eskuratze-prozesuaren oinarriak lantzeko une teorikoak eta espazio praktikoak tartekatuko dira. Horietan, haur-ekoizpenen adibide zehatzak aztertuko dira, ikasgelako erregistroak behatuko dira eta egoera didaktikoak proposatuko dira.
- Gainera, gogoeta pedagogirako giroa sustatuko da, irakasleek beren praktikak berrikusi, kezkak partekatu eta irizpide komunak eraiki ahal izateko, hurrei beren irakurketa eta idazketa prozesuetan laguntzeko.



Emailea

Haurrak ekinean" liburuaren egilea. Lehen Hezkuntza eta PT maisua. 25 urte baino gehiagoko hezkuntza ibilbidea du egina. Bere lanak Proiektuen Bidezko Ikaskuntza (PBI) du ardatz, ikasleen aniztasunera egokitutako hezkuntza inklusibo eta aktibo baten aldeko konpromisoa islatzen duena.

Hainbat ezaugarri eta testuingurutako eskoletan lan egin du, adin anitzeko taldeekin eta inklusioa eta parte-hartzea sustatzen duten metodologia aktiboak eta manipulatioak aplikatuz. Besteak beste, honako hauek dira bere espezialitateak: Proiektuen Bidezko Ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, ebaluazio-estrategiak eta inklusioa.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaria izan da Mikel. Bestalde, Arabako Berritzegunen ere egin du lan, aholkulari gisa eta irakasleen formazioan.

Honetaz gain, hitzaldi eta formazio ugarian parte hartu du hizlari gisa, PBI, ebaluazioaren, inklusioaren eta metodologia aktiboen inguruan dituen ezagutzak partekatuz.



Kontaktua:

Mikel Fernández Sánchez

Maite Etxeberria Elkoro

proiektatu@gmail.com

Telf: 688 631 452

www.proiektatu.com